

PLAN PREV. EUSKADIKO PENTSIOAK 2040

2023KO LEHEN SEIHILEKO TXOSTENA

Urtearen lehen zatian eutsi egin zaie aurreikusitako BPGd-aren hazkunderi, iazko ekitaldiaren bukaeran dezelerazio-aurreikuspenak plazaratu baziren ere. Are gehiago, aurtengoan ezusteko positiboak ere izan ditugu. Azkenean, banku zentral nagusiek mundu-mailan ezarritako diru-baldintza gogorrek ez dute eskariaren dezeleraziorik ekarri. Eskariaren erresilientzia horren eraginez, banku zentralak interes-tasei buruzko diskurtso oso gogorrari eutsi diote, inflazio orokorrak seihilekoan behera egin arren azpiko inflazioak ia-ia bere horretan jarraitzen baitu. Energia merkatzeak eragin nabarmena izan du tasa orokorraren beherakadan; izan ere, energiaren prezioak % 10etik gora jaitsi dira hiruhilekoan, eta % 30 baino gehiago azken 12 hilabeteetan. Hala ere, azpiko inflazioak (elikagaien eta energiaren prezioak kontuan hartzen ez dituztenak) oso gutxi murriztu dira Estatu Batuetan (% 5,7tik % 4,8ra abendutik ekainera). Eurogunean, berriz, goraka egin dute (% 5,2tik % 5,4ra), eta maila oso altuetan jarraitzen dute. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan, bai Erreserba Federalak eta bai Europako Banku Zentralak gorantz zuzendu dituzte 2022aren bukaeran plazaratu zituzten azpiko inflazioari buruzko aurreikuspenak. Tasa-igoerek jarraipena izan dute lehenengo hiruhilekoan. AEBko Erreserba Federalak oinarrizko 75 puntu igo du interbentzio-tasa, % 5,25eraino. EBZk gauza bera egin du eta oinarrizko beste 150 puntu igo ditu tasak, % 4,00eraino. Gorakada horri esker, zorroko aktibo monetarioen errentagarritasuna handitzen ari da: eurogunean, kotizazio negatiboa zuten eta, denbora gutxian, % 3tik gorako etekinak hasi dira ematen. Hala, 12 hilabeterako Altxorraren letrek % 3,5etik gora amaitu dute abendua. EBZk inflazioari aurre egiteko erakutsi duen erabakitasunak tentsioa areagotu du epe laburreko interes-tasei dagokienez. Bada, 2 urterako Alemaniako bonuaren BETa % 3,20ra iritsi da, seihilekoan oinarrizko 40 puntu baino gehiago gora egin ondoren. Epe bererako Altxorraren zorrak, berriz, oinarrizko 57 puntuko igoera izan du eta % 3,50era heldu da. Nolanahi ere, epe luzeagorako gobernu-bonuek ia ez dute errentagarritasun-igoerarik izan; are gehiago, 10 urterako epeetan BETak behera ere egin du, oinarrizko 20 puntu inguru Alemanian eta oinarrizko 30 bat puntu Espainian. Ondorioz, epe luzerako zorrak % 4 inguruko irabaziak izan ditu, eta zorroaren bilakaera ona bultzatu du. Seihilekoan zehar, egoera aprobeztatuta, zorroaren iraupena luzatu dugu eta benchmarkak duenaren ingurura hurbildu gara. Horrenbestez, datorren hiruhilekoetara begira, handitu egin dugu zorroaren errentagarritasun inplizitua ere. Kalitaterik handieneko eurotako errenta finko korporatiboak bilakaera ona izan du, 2022an zuzenketa nabarmenak izan ondoren. Hala, % 2tik gora errebalorizatu da, zenbait bankuk Estatu Batuetan eta Europan izan duten krisiak egoera zaildu duen honetan. Baina hegakortasuna gorabehera, gobernu-zorreakiko diferentzialak egonkor jarraitu du. Seihilekoan zehar haztapena handituz joan da zorroan.

PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILAK

- . Euskadiko Pentsioak, Borondatezko Giza Aurreikuspen Erakundearen barnean dagoen ekarpen definituko banakako aurreikuspen plana 106-G zenbakiarekin dago inskribatuta Eusko Jaularitzaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan, V-20211702 zenbakiko IFZ du eta Arrasateko (Gipuzkoako) Jose María Arizmendiarieta pasealekua, z/g du helbidea.
- . Bazkide babesle-sustatzailea, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito
- . Gordailuzaina, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito

PLANAREN BILAKAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA
1 Seihiakoa	10,38
2023ko metatua	10,38
2022 Urtea	-17,85
Azken 3 Urteak	-0,22
Azken 5 Urteak	1,65

DATU OROKORRAK

	EGUNGO SEIHILEKOA	AURREKO SEIHILEKOA
Ondarea	71.905.290,67	62.902.596,64
Partaidetza kopurua	8.215.164,04	7.932.263,97
Likidazio-balioa partaidetzagatik	8.752752	7,929968
	EHUNEKOA	KALKULO OINARRIA
Administrazio gastuak	1,40%	Ondarearen gaineko
Bitarteko gastuak	0,00%	Ondarearen gaineko
Errotazio ratioa	-0,02	Ondarearen gaineko

MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	6,69
Errenta Aldakorraren %	59,46%

ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	23/06/30eko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
ERRENTA FINKOA	34.593.464,86	49,19%
REPO	12.000.000,00	17,06%
BO. ESTADO ESPAÑA 1,2% 401031	3.941.813,14	5,60%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,90% 400730	5.350.218,23	7,61%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,90% 400730	838.216,82	1,19%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,90% 400730	4.071.338,85	5,79%
ETF. AMUNDI IEACS UCITS ESG	1.824.267,30	2,59%
ISHARES EUR HY CORP ESG EURA	4.198.616,27	5,97%
ISHARES EUROP CORP ESG	2.368.994,25	3,37%
ERRENTA ALDAKORRA	35.734.354,98	50,81%
AC. ADYEN	258.485,40	0,37%
AC. AHOLD NV	194.030,82	0,28%
AC. AIR LIQUIDE	542.024,20	0,77%
AC. ALLIANZ AG HLDG	518.289,20	0,74%
AC. ANHEUSER BUSCH INBEV NV	262.726,27	0,37%
AC. ASML NV	1.689.324,00	2,40%
AC. AXA-UAP	388.295,20	0,55%
AC. BANCA INTESA SANPAOLO SPA	248.882,40	0,35%
AC. BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA	280.372,87	0,40%
AC. BANCO SANTANDER	343.516,57	0,49%
AC. BASF	256.591,90	0,36%
AC. BAYER	320.133,06	0,46%
AC. BAYERISCHE MOTOREN WERKE AG	213.337,92	0,30%
AC. BNP PARIBAS	401.673,48	0,57%
AC. CRH PLC	224.169,50	0,32%
AC. DAIMLER AG	378.000,77	0,54%
AC. DANONE	230.398,56	0,33%
AC. DEUTSCHE BOERSE AG	184.488,10	0,26%
AC. DEUTSCHE POST AG	264.399,03	0,38%
AC. DEUTSCHE TELEKOM, A.G.	414.941,47	0,59%
AC. ENEL SPA	305.797,10	0,43%

BALIOAREN DESKRIBAPENA	23/06/30eko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
AC. ENI SPA	188.449,87	0,27%
AC. ESSILOR INTERNATIONAL	308.263,60	0,44%
AC. HERMES INTERNATIONAL	407.950,00	0,58%
AC. IBERDROLA	483.042,90	0,69%
AC. IFX GY	282.442,88	0,40%
AC. INDITEX	229.638,96	0,33%
AC. INGA-ING GROEP NV	289.005,31	0,41%
AC. LOUIS VUITTON MOET HENNESSY	1.383.389,00	1,97%
AC. L'OREAL	672.682,50	0,96%
AC. MUENCHENER RUECKVER	295.839,60	0,42%
AC. NOKIA OYJ	126.770,95	0,18%
AC. NORDEA BANK ABP	208.837,53	0,30%
AC. PERNOD RICARD	220.211,20	0,31%
AC. PROSUS	346.623,15	0,49%
AC. SANOFI-AVENTIS	678.169,20	0,96%
AC. SAP AG	805.275,90	1,15%
AC. SCHNEIDER ELECTRIC SA	584.940,44	0,83%
AC. SIEMENS	783.140,36	1,11%
AC. STELLANTIS	224.133,70	0,32%
AC. TOTAL FINA	771.539,10	1,10%
AC. UNICREDIT SPA	231.193,08	0,33%
AC. VINCI	383.819,04	0,55%
AC. VOLKSWAGEN	139.291,02	0,20%
AC. VONOVIA SE	85.359,15	0,12%
ACCIONES ADIDAS	166.579,86	0,24%
ACCIONES KERING	242.182,40	0,34%
ETF. LYXOR ETF S&P500 HDG	1.024.650,00	1,46%
ETF.INVESCO EURO STOXX 50 UCITS EUR SCOD	2.582.477,40	3,67%
SPDR SP500 HDG EUR	1.625.295,52	2,31%
etf INVESCO S&P 500 HDG	12.043.283,54	17,12%
ZORROA GUZTIRA	70.327.819,84	100,00%

POSIZIO IREKIAK DERIBATUETAN

	KONTRATU KOPURUA	MUGAEGUNA	MERKATUA	MERKATU BALIOA	AZPIKOA
FU. S&P 500 MINI SEP23	34	23/09/15	CHICAGO MERCANTIL EX	7.067.922,51	INDICE S&P 500